

Certamen
Literario
Infantil
y Juvenil
en Euskera

XXVI 2015


Literatura
Lehiaketa
Haur eta
Gazteentzat
Euskaraz



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera



Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2015eko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 238 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

EPAIMAHAIA / JURADO

Presidentea / Presidenta:

Fátima Sesma Vallés

Epaimahaikideak / Miembros del Jurado:

Alaitz Institututuko irakasleak / Profesorado Instituto Alaitz

Jokin Muñoz

Josu Goienetxe

Jon Barberena

Uxue Arbe

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak / Profesorado C.P. Alaitz

Iñaki Andueza

Jose Luis Ladrero

Sahats-IKA Euskaltegi irakasleak / Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Joxerra Olano

Aitziber Garralda

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2015. En total se presentaron 238 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación S.L.

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ALZATE

LEGE GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL

NA 920-2015

Presentación

En primer lugar daros las gracias a todos los participantes en este certamen literario infantil y juvenil en euskera, ya que sin vuestra participación este certamen no sería posible.

En segundo lugar, quiero felicitar a todos y todas las ganadoras, autores de los cuentos y bertsos que a continuación quedan reflejados en este libro, escritos por niños, niñas y jóvenes de nuestra localidad, y que con toda seguridad disfrutaréis con su lectura.

No quería dejar pasar esta oportunidad para felicitar y agradecer a todas las personas que de una manera u otra han hecho que esta actividad haya tenido continuidad a lo largo de los años llegando en 2015 a su XXVI edición.

Debido a su buena aceptación seguiremos fomentándolo, ya que gracias a la buena acogida que tiene entre niñas, niños y jóvenes de Barañáin que tienen como una de sus lenguas el euskera, el próximo año convocaremos la 27ª edición, y eso creo que es un signo muy importante.

Os animo a que sigáis enriqueciendo este certamen literario en euskera, y participando en él.

Un cordial saludo y gracias,

Aurkezpena

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet haur eta gazteentzako euskarazko literatura lehiaketa honetako parte-hartzaile guztioi, zuen ekarpenik gabe ez bailegoke lehiaketarik.

Bigarrenik, lehiaketan sarituak izan zareten guztioi, liburuxka honetako ipuinen eta bertsoen egileak zareten herriko haur eta gazteei alegia, zorionak! Lan hauek irakurtzerakoan gozatzuko duzuelakoan nago.

Urtez urte, era batean edo bestean, jarduera honek jarraipena izatea ahalbidetu duzuenoi ere zorionak eta eskerrak emateko aukera ez dut galdu nahi; izan ere, 2015. urtean XXVI. edizioa heldu gara.

Duen harrera onaz jabeturik, beren hizkuntzen artean euskara duten haur eta gazteen artean duen harrera ona ikusirik, euskarazko literatura lehiaketa hau sustatzen jarraituko dugu. Hartara, datorren urtean 27. edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, literatura lehiaketa hau aberasten eta horretan parte hartzen jarrai dezazuen.

Agur bero bat eta esker anitz,



Iz. / Fdo.

FÁTIMA SESMA VALLÉS

**PRESIDENTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EDUCACIÓN Y DEPORTES
RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**

**HEZKUNTZAKO ETA KIROLERAKO INFORMAZIO BATZORDEBURUA
EUSKARA ARLOKO ARDURADUNA**

Ipuinak modalitatea

Modalidad “Cuentos”

LAGUNAK BETIRAKO

Iratze Mauleon Arnaiz

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Gaur egun ipuin hau gertatzen ari da. Egun batean zeliaka neska bat, Amaia deitzen zena, eta mutil bat, Aitor deitzen zena eta garun paralisia zeukana, elkartu ziren.



Biak mendira joan ziren eta han elkartu ziren. Elkarren “Kaixo” aldi berean esan zuten eta izenak hasi ziren galdezka: “Nola deitzen zara?” esan zuten batek. Hitz egiten hasi ziren biak eta beste egun batean gelditu ziren berriro. Aitorrek bere txakurra ekarriko zuela esan zuten eta Amaiak bere patinetea. Hori esanda, etxera joan ziren.

Lotan zegoen bitartean, bere ametsetan, Aitor eta Amaia ateratzen ziren. Aitor bere txakurrarekin, Amaia patinetearekin eta abar eta abar..

Hurrengo egunean, elkartu ziren kalean. Beraien ametsak kontatu eta aho irekiarekin gelditu ziren biak. Aitorrek bere txakurra ekarri zuen eta Amaiak bere patinetea.




XXVI. Literatura lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

Oso polita zen Aitorren txakurra, bihurria ere bai. Amaia eta Aitor oso lagunak ziren. Horregatik Amaiari ideia bat bururatu zitzaien:

- Aitor, zergatik ez dugu festa bat egiten gure gaixotasunei buruz? -galdetu zuen Amaiak. Aitorrek, baietz esan zuen eta lagun guztiei gonbidatu zituen. Gominolak, txokolatea eta abar eta abar...

Denek oso ongi pasa zuten. Amaiak eta Aitorrek lagun berriak egin zituzten. Hortik aurrera "Garun paralisia" eta "Zeliakia" errespetatu zuten. Aitorren ama eta aita oso pozik jarri ziren eta Amaiarenak ere. Aitorren eta Amaiaren gura-soak elkar ezagutu ziren eta oso gustura geratu ziren. Konfiantza handia hartuz eta beti pentsatzen zer den hoberena beraien seme-alabentzako.



Hala bazan ala ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Barañaingo plazan.

MARTIN ESKIATZEN

Andoni Astrain Zabalegui

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin oso eskiatzaile ona zen Martin izeneko mutil bat. Bere herrian elur asko egiten zuen eta urtero bere aitarekin eskiatzera joaten zen.

Urte batean Martinek eskiatzera joan nahi zuen eta bere aitak esan zion:

- Ala, Martin, goazen eskiatzera!
- Ez! Zu ez zara joango eskiatzera!
- Zergatik ez? -galdetu zion bere aitak.
- Nik 9 urte ditut eta handia naiz. Bakarrik joango naiz!
- Ez zara bakarrik joango.

Martinek ez zion kasurik egin eta eskiak hartu eta mendira joan zen eskiatzera. Harro-harro eskiatzen hasi zen. Ordu bete bat pasa, nekatuta zegoen. Txori koloredun bat ikusi zuen eta bere atzetik joan zen korrikan. Txoriak toki batera eramane zuen. Han kartel bat zegoen:

EZ PASATU
ELUR JAUZIAK

Martinek ez zion kasurik egin kartelari. Txoria zuhaitz baten puntan gelditu zen. Martin txoriari begira geratu zen. Bat-batean elur jauzi bat egon zen. Martini elur jauzia ganean erori zitzaion.

Bere aita azkar konturatu zen Martinek bera gabe alde egin zuela. Eta aita korrika joan zen mendira. Berehala ikusi zuen non zegoen, elur jauziaren azpian zela ere. Anbulantzia bati deitu eta laster etorri zen anbulantzia. Martin handik gutxira sendatu zen eta aitak esaten duena bete behar dela ikasi zuen. Egia ala gezurra begi bien artean sudurra. Gezurra ala egia sudurraren ondoan begia.

JOSEBAREN AMETSA

Amaita Nazabal Martínez de Albéniz

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 4° curso

Bada 13 urteko mutiko bat Joseba deitzen dena. Institutuan dago. Askotan txandala janzten du, kirola asko gustatzen zaiolako, berriz, ez zaio ezer gustatzen dantza egitea. Begi urdinak zerua bezalakoak ditu, ile marroia gaztaina kolorekoa, sudur puntaduna eta aho handia du. Oso altua da eta hankak luze-luzeak ditu. Ni bere anaia naiz, 9 urte ditut eta nire anaia miresten dut.

Egun batean andereñoak idazlan bat eginarazi zion:

“Ostiralerako zuen etorkizuna nola imajinatzen duzuen garbi idatzi behar duzue paper batean”. Orduan nire anaia egun osoan pentsatzen aritu zen. Nik ideia batzuk eman nizkion: Ume batzuk izan behar zituela, Barañainen bizi behar zuela, ezkonduko zela...

Joseba lotara joan zen ezer idatzi gabe. Hurrengo goizean bazekien zer idatzi. Bere ametsa kontatu zidan.

Ikasketak gero eta zailagoak egiten zitzaizkion institutuan. 18 urte zituen eta bere azken urtea zen institutuan. Berak irakaslea izan nahi zuen. Institutua bukatu zuenean Iruñeko unibertsitatara joan zen. Ikasten eta ikasten jo eta ke inoiz gelditu gabe, ezta jai egunetan ere. Egun batean bere irakasleak esan zion Alaitz Ikastetxera joan behar zuela hango ikasleei proba batzuk egiteko. Alaitzera iritsi zenean Juana Monrealen gelan tokatu zitzaion. Egin ondoren esan zidan oso alaiak eta azkarrak zirela hango neska-mutilak.

Beste eskoletara ere joan zen, eta beste eskolara, eta beste...

Azkenean gehien gustatu zitzaion eskola Alaitz Ikastetxea izan zen eta erabaki zuen irakaslea izatea bertan.

Gero andregai polit-polit bat hartu zuen. Begi berdeak zituen, belarra bezain berdeak, ile horia eguzki-lorea bezalakoak, aho handia kobazulo baten antza zuena, bere sudur borobila futboleko baloia zirudien, oso altua zen. Martina deitzen zen. Bi urte elkarrekin egon ziren eta orduan Martina eta Joseba ezkondu ziren. Barañaingo elizan ezkondu ziren. Etxarri-Aranatzeko “Borda” jatetxean bazkaldu zuten. Hiru urte pasa zirenean umeak izan zituzten, bikiak ziren, neska eta mutila

izan ziren. Neska enara deitzen zen eta mutila Iñigo. Biak oso bihurriak ziren, Niretzat ilobak ziren. Oso desberdinak ziren, Enara Joseba bezalakoa zen eta Iñigo Martina bezalakoa.

Barañainen bizi ziren Alaitz Ikastetxe ondoan. Enara eta Iñigo Alaitz Ikastetxera joan ziren ikastera. Oso langileak ziren eta oso ondo pasatzen zuten eskolan. Horrela bukatu da ametsa.

Josebak ongi idatzita eskolara eraman zuen. Andereñok bikain bat eman zion.

LAURAREN BIDAIA

Nahia Biurrun Álvarez de Eulate

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Laura izeneko neska bat, oihan ondoan zegoen herri txiki batean, bere izebarekin, bizi zena. Neska alai zen, begi urdinak zituen, ile luze eta horia, altua zen eta saskibaloira jolasten zuen. Oihan ondoan bizi zenez egunero oihanera joaten zen. Bertan lagun bakarra zuen: Bubi. Hartz txiki bat zen eta oihanaren bihotzean bizi zen.

Behin, ohetik altxatu ondoren Bubi bisitatzaera joan zen. Kobazuloan begiratu zuen. Ez zegoen. Zuhaitz ondoan ere bai; ezta ere. Gero oihan osotik. Ezta. Ez zekien zer egin. Etxera negarrez bueltatu zen eta izebari kontatu zion guztia. Izebak hain triste ikustean, eta dena ahazteko, bidaia bat egitea oparitu zion Laurari. Parisera joango ziren hilabete batez.

Eguna ailegatu zenean Madrilera joan ziren aireportura. Laurari harrigarria iruditzen zitzaion. Gero hegazkinean igo ziren eta ordu batean Parisen zeuden.

Lehenengo egunean Eiffel dorrea bisitatzaera joan ziren. Hirugarren pisuraino igo ziren eta hortik Paris osoa ikusi zuten. Gero jatetxe batera joan ziren baina ezin izan zuten jan, zerbitzariak den-dena frantsesez esaten baitzuten eta ez zekiten euskaraz hitz egiten. Bigarren egunean desastre bat izan zen. Zoorra joan nahi zuten baina galdu egin ziren eta zoorra joan ordez, animalia denda batera sartu ziren.

Hirugarren egunean mapa bat lortu zuten eta horrela iritsi ziren zoorra. Lehenengo, jirafak ikusi zituzten, oso altuak ziren eta altuenak izebari miazkatu zion sudur puntan. Aurrera segi eta lehoiengana abiatu ziren, gero tximinoengana eta azkenean hartzengana heldu ziren. Hor Bubi zirudien hartz bat ikusi zuten. Hartz horrek Laurari begiratu zion eta beregana atera zen. Laura Bubi zela konturatu zen eta poz handiarekin besarkatu zuen.

Eta horrela bere herrira pozik eta lasai joan zen.

PULTSERA BOTERETSUA

Izadi Biurrun Mendia

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 5° curso

Kaixo, nik Izadi dut izena eta 11 urte ditut. Atzo gertatutakoa kontatuko dizuet. Mundua grisa zen, eta bakarrik gauza txarrak gertatzen ziren. Jende guztia triste eta haserre zegoen, eta inork ez zeukan segurtasunik, ezta poztasunik ere... nire amonak izan ezik.

Egun batean nire amona gaixorik jarri eta oso ondo gordetako kutxa batean zegoen pultsera bat eman zidan. Zer ote zen altxor hura? Oso botere zoragarriak zituela esan zidanean, besarkada handi bat eman eta korrika probatzera joan nintzen.

Jarri eta seinalatutakoa koloretsu bihurtu nuen. Lapur batzuk seinalatu eta jatorrak eta onak bihurtu nituen. Horrela mundua hobea bihurtuko nuen! Eta superheroi izango nintzela erabaki nuen. Izen modura KOLOREZADI bururatu zitzaidan. Gutxinaka, mundu grisa, koloretsua bilakatu nuen.



Baina egun batean pultsera erori eta apurtu egin zitzaidan. Amonarengana joan nintzen triste, gertatutakoa esatera. Eta orduan izan zen konturatu nintze-nean... Kontxoli!! Amona ohean zegoen, botikarekin erdi berdea! Pultsera apurtu zitzaidala esan nion, eta ez zitzaidala bururatu bere botereekin amona sendatzea. Tristeago sentitu nintzen momentu horretan...

Orduan irribarre triste bat jarri zuen bere aurpegitxoan, eta esan zidan boterea familiak zeukala eta ez pultserak. Pultserak bakarrik balio zuela boterea pizteko. Hori entzunda, nire indar guztiak bildu nituen nire atzamarraren puntan... Amona seinalatu... eta... Poff!! Amona sendatuta!

Halako batean, nire amak esnatu egin ninduen. Izerditan blai nengoen. Momentu horretan, dena amets bat izan zela jabetu nintzen.

Eta hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Ametsetako plazan.

IZKUTUKO BERTSOLARIA

Ainara Gorostidi García

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Ai ama, Ai ama!! Ikusi eta dardarka hasi nintzen. Bueno, hasieratik hasiko naiz. Kaixo, Amaia dut izena eta Donostian bizi naiz. Atzo arratsaldean gertatutakoa kontatuko dizuet.

Escolatik etxerako bidean zapatan zerbait sumatu nuen. Etxera ailegatu nintze-nean, zapata kendu eta izaki txiki bat lokarrien artean ezkutatu zen. Hori ikusita, dardarka hasi eta Ai ama, Ai ama!! Oihuka zapata airetik bota nuen, bat-batean izaki txikia niri begira gelditu eta esan zidan:

- Argitxo dut izena
galtzagorri bat naiz
leku guztietara
iristen naiz garaiz

Ni harrituta gelditu eta ea hitz egin ordez zergatik bertsoetan aritzen zen, gal-detu nion:

- Hitzetan aritzea
bai aspergarria
bertsotan egitea
dibertigarria.

Eskerrak eserita nengoela. Bestela, lurrera eroriko nintzen. Oraindik begiak zabal zabalik nituen. Ezin nuen sinestu eta nire pentsamenduak zirela uste nuenez... Komunean aurpegia ur hotzarekin garbitu, botika hartu eta lehen nengoen tokira bueltatu nintzen. Berriro ikusi eta bertsoka hasi zitzaidan:

- Benetakoa naiz bai
ez naiz pentsamendu
botika eta gero
ez naiz desagertu

Pentsatzen hasi eta hitz magiko batzuk esaten hasi nintzaion.

- Zu zu zu desagertu!
Galtzagorria niri begira esan zidan:

- Zertan ari zara ba
zer pentsatzen bai zu
fantasia naizela
zuk uste ahal duzu

Nik buruarekin baietz esan nion eta hauxe esan zidan:

- Zuk zure nahia esan
nik bete egingo dut
baina proposamen bat
egin behar dizut

Ni gero eta lasaiago nengoen eta berak proposamena egin zidan:

- Nik zure nahia bete
zuk zerbait trukean
ba bizi beharko dut
nik bai leihopean

Nik baietz esan nion eta bera leihopera joan baino lehen, esan zidan inork ezin zuela jakin hor bizi zela. Hurrengo egunean, eskolan nengoela, estutxean Argitxo ikusi eta oso urduri jarri nintzen. Orduan, Argitxo nire motxilako poltsa txikian sartu eta itxi nuen. Etxera ailegatu nintzenean, Argitxo poltsatik atera eta esan zidan:

- Neska zertan zabilta
zer pentsatzen duzu?
ikastolan burua
zuk galdu al duzu?

Nik ezetz esan nion eta barkamena eskatu eta gero...

Desagertu egin zen, Ni korrika eta presaka, bila nenbilen etxetik. Bat-batean erori eta buruan kristonako kolpea hartu nuen. Azkenean begiak ireki eta Ai ama, Ai ama!! Sofan lo eginda nengoen, Dena amets bat izan zen (eta iratxoa nire pentsamenduetan baino ez zegoen).

OROIMENA

Paula Crespo Lamelas

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 6° curso

Baziren behin aitona eta amona bat etxe batean. Oso pozik bizi ziren biak elkarrekin. Amona oso alaia zen, baina egun batean, oroimena galtzen hasi zen: gosalteko orduan ez zekien non zegoen esnea, ezta ogia, ez zekien ezer ez. Orduan, aitonak erresidentzia batera eramatea aukeratu zuen.

Oso triste zegoen aitona eta bera eta bere familia beti joaten ziren amona ikustera.

Egun batean, janaria egiten, aitonak mina hartu zuen behatz batean, eta bere alabak ospitalera eraman zuen. Medikiak zauri txikia zuela esan zion eta aitonak esan zuen:

- Azkar sendatu behar didazu, nire emaztearekin bazkaldu nahi dut.
- Bai, orain bukatuko dut. Zer gertatu zaio zure emazteari?
- Alzheimer duela, eta erresidentzia batean dagoela.
- Kezkatuko da zu ez bazoaz?
- Ez, ez nau ezagutzen.
- Eta orduan, ez bazaitu ezagutzen, zergatik nahi duzu azkar joan?
- Nik bera ezagutzen dudalako.

KOLOREEKIN AMETSETAN

Itsaso Arraras Moreno

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Bazen behin 12 urteko mutiko alferra eta bihurri bat. Carlos deitzen zen. Mutikoa beti telebista ikusten zegoen, ez zituen etxerako lanak egiten, beti berandu ailegatzen zen ikastolara, amari oso gaizki hitz egiten zion... Carlosek ezaugarri oso berezi bat zuen: zuri-beltzean amets egiten zuela. Mutikoa horretaz aspertuta zegoen eta beti ea zergatik amets egiten zuen kolore horietan galdetzen zion bere buruari.

Gau batean, Carlosek amets arraro bat izan zuen. Han, bere betiko galderei erantzuten zion ahots batek: zuri-beltzean amets egiten zuen bere amarekin oso gaizki portatzen zelako eta ikastolako notak oso txarrak zituelako eta horregatik amak gauean ez zuelako lorik egiten, horretan pentsatzen. Hori, zigor bat zen. Eta konpondu nahiko bazuen, amarekin ondo portatu behar zen eta ikastolan ondo ibili beharko zen.

Orduan, goiz hartan, Carlos lanean hasi zen: 07:00etan altxatu, eta amari gosaria prestatu zion, gainera, ama 08:00etan altxatzean mutikoa ikastolara joateko prest zegoen. Gau horretan, Carlosek ametsak zuri, beltz eta gorri koloretan egin zituen.

Hurrengo egunean, Carlos, ikastolatik atera, etxera bueltatu eta hara ailegatzeko etxerako lanak egin eta saskibaloira joateko prestatu zen, gainera, amari ez zion gaizki erantzun. Gau horretan, zuri, beltz, gorri, hori eta urdin koloretan amets egiten zuen.

Hurrengo egunean ere, aurreko bi egunetan egindako guztia egin zuen eta gainera, saskibaloira joan ondoren, telebista ikusi ordez, erratza pasatu zuen etxe osotik. Gau hartan, ametsak zuri, beltz, gorri, hori, urdin eta berde koloretan izan zituen.

Orain, egunero egiten du berdina eta gainera amari gaizki portatzeagatik barkamena eskatu zionez, kolore guztietan amets egiten du.

ARGIA ETA ILUNTASUNA

Ane Cestau Lertxundi

1. SARIA: Bigarren Hezkuntza 1. DBH

1º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Orain dela urte asko eta asko, baziren behin argia eta iluntasuna. Argia, polita, erakargarria eta pozez betea zen. Iluntasuna berriz, kolore tristekoa itzalez betetakoa eta triste bizi zen. Triste zegoen, jendeak argia bera baino gustukoagoa zelako, eta horrek, oraindik okerragoa egiten zuen bere bizitza.

Egun batean iluntasuna oso jeloskor zegoen eta Lurreko gizakiengana jotzea erabaki zuen.

XXVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Zergatik ez naiz zuen gustukoa? -galdetu zuen iluntasunak.
- Zuk tristura bakarrik eragiten diguzulako! -esan zion jendeak oihuka.
- A bai? Eta zer eragiten dizue argiak? -galdetu zuen haserre iluntasunak.
- Poza eta alaitasuna! -erantzun zion jendeak.

Iluntasuna bere etxera joan zen, amorratuta, jendeak esan zionagatik.

Hurrengo egunean, iluntasuna argiaren etxera joan zen,

- Egun on, zer nahi duzu? -esan zion argiak.

- Zera...zure laguntza behar dut. Jendeak oso gustuko zaitu, ni baino gehiago, eta horregatik nahi dut zuk laguntzea, jendeak niri gehiago maitatzeko.

- Lagunduko didazu? -azaldu zion iluntasunak.

- Bai! Jakina!

- Ondo da, zer egin behar dut?

- Ea...Ba nik uste dut, jendearekin atseginagoa izaten probatu beharko zenuela.

Horrekin uste dut ikusiko dutela benetan ona zarela.

- Beno, ondo da, probatuko dut.

- Ez horregatik, ez da ezer izan. Agur!

- Agur!

Biharamunean, iluntasuna herriko gizakiengana joan zen eta argiak esandakoa egin zuen; Jendeari enkarguak egiten laguntzen, kaleak garbitzen, eta umeekin jolasten pasatu zuen egun osoa, baina hala ere, jendeak ez zion eskerrik ematen eta bakarrik uzten zuten.

Hori ikustean, iluntasuna oso triste jarri zen. Berari ez zioten kasurik egiten, egun osoan argiarekin zeuden. Orduan iluntasuna argiaren etxera joan zen berriro.

- Kaixo argia, zuregana nator berriro jendeak gorroto nauelako oraindik. Zuk esandakoa egin dut baina ez da ondo atera. -esan zion iluntasunak triste.

- Ba begira, ez zait gustatzen zu horrela tratatzea eta zerbait egin beharra daukagu! -esan zion argiak.

- Bai, baina zer? -galdetu zion argiari.

- Badakit! Etorri, nire plana kontatuko dizut. Eta argiak bere plana kontatu zion.

- Ideia bikaina da, eta ziur nago ondo aterako dela, baina hori egiteko prest zaudenigatik? -galdetu zion iluntasunak harrituta.

- Bai, oso gaizki iruditzen zait jendeak zu horrela tratatzea.

Hurrengo egunean goizean goiz, iluntasuna eta argia Lurreko jendearengana joan ziren arazoa konpontzeko.

- Badakit ez duzuela iluntasuna oso gustuko baina ez dago ongi zuek horrela tratatzea. Horregatik bien artean, erabaki dugu banaketa bat egitea.

- Zer?! -oihukatu zuen herritar batek.

- Banaketa bat?! Zer banaketa?? -oihukatu zuen beste batek.

- Ba bai. Erabaki dugu egun erdia ni egongo naizela zuekin eta beste egun erdia iluntasuna egongo dela zuekin.

- BUUUU!!! Kanpora!!! -hasi zen jendea haien kontra.

Baina iluntasunak eta argiak esan zien erabakia hartuta zegoela eta ez zutela aldatuko. Beraz, herritarrei ez zitzaien beste irtenbiderik geratu eta baietz esan zuten.

Denbora pasatuz joan zenean herritarrak konturatu ziren ez zela hain txarra banaketa hura eta hobeago bizi zirela. Gainera iluntasuna errespetatzen ikasi zuten.

Horrela sortu ziren gaur egungo eguna eta gaua. Eguna denean, argia dago gurekin eta gaua denean, iluntasuna egoten da gurekin. Horrela sortu ziren ba, gaur egungo eguna eta gaua.

BASOKO ABESTI LEHIAKETA

Mikel Iso Muguruza

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Bazen behin, basoan bizi zen bele bat. Belea ez zen oso ederra, ezta indartsua ere, baina bai bihotz onekoa eta langilea.

Egun batean, abesti lehiaketa egongo zela basoaren animalien artean iragarri zuten txori batzuek. Urtero egiten zen eta beti Pauma jaunak irabazten zuen. Oso ongi abesten zuen, baina oso harroa zen. Beti bere buztan koloretsuaz harrotzen zen, oso ederra baitzen.

Belea parte hartzera joan zen eta animalia asko parte hartzen ari zirela ikusi zuen. Orduan, Pauma jaunak iritsi zen.

- Zu, bele itsusia, nire ikusmena minduko duzu zure aurpegi horrekin! -esan zuen Paumak.

- Alde hemendik!

Hau esanez, hor zeuden animalia gehienek beleaz barre egin zuten. Belea negarrez joan zen urrun zegoen zuhaitz batera.

Lehiaketarako aste bat geratzen zen eta animalia guztiak nola abesten zuten baso osoan entzuten zen. Baina belea bakarrik zegoen, triste. Bera ez zekien abesten.

- Abestea tontakeria bat da! -esan zuen haserretuta.

Handik pasatzen zen tximeleta batek hauxe esan zion:

- Abestea tontakeria bat dela esaten baduzu, abesten ez dakizulako da.

- Baina nik ezin dut abestu, munduko abeslaririk txarrena naiz!

- Ba ni zure kantu irakaslea izango naiz. Esan zion tximeletak irribarre batekin.

Esan eta egin, tximeletak kantu klaseak eman zizkion beleari eta pixkanaka-pixkanaka, belea ongi abesten hasi zen. Lan asko zen baina belea ere oso langilea zen; saiatzan denak nahi duena lortu ahal duelako. Denbora gutxi zutenez, asko praktikatzan zuten eta belea oso pozik zegoen.

Abesti lehiaketaren eguna ailegatu zenean, animalia asko zeuden eta belea oso urduri zegoen. Lehenengo oiloak abestu zuen, gero enarak, gero otsoak, gero katuak eta gero kilkerak. Pauma jaunaren txanda heldu zen. Oso kantu ederrak abesten zituen. Bukatu zuenean hauxe esan zion beleari:

- Ea nik baino hobeago egin ahal duzun, bele itsusia!

Belea animalien artean jarri zen. Geldi, urduri, beldurrarekin. Baina tximeletare-

kin ikasitakoa gogoratu zuen. Mokoa ireki eta abesten hasi zen. Basoko kantu ederrrenak ziren. Oso ongi abesten zuen. Bukatu zuenean denak harriturik gelditu ziren, aho-zabalik. Azkenik txalo bero bat egin zuten animaliek.

Beleak irabazi zuen.

Tximeletarengana joan zen eta besarkatu zuen.

- Eskerrik asko, ez dakit zer egingo nuen zu gabe! -esan zuen beleak.

Handik aurrera, inork ez zuen barre egin beleaz. Pauma jaunak barkamena eskatu zion beleari. Beleak Paumari barkatu zion. Denok zoriontsu bizi ziren.

HEZURRAK

Sara Del Río Muñoz

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria 2° ESO

Bera ispiluan begiratzen da, eta amildegi bat ikusten du. Bere gorputza gorrotatzen du. Bere bularrak eztanda egin behar duela sentitzen du, bere negarrak eztanda egingo duela. Oihu bat eztarrarian harrapatuta dauka, oihukatzen uzten ez diola.

Begirada eder bat ezkututzen du gezur baten azpian, gizarte honek sinestaraztea egin diola.

Ez dio inork ulertzen, berak, neskaxa polita izan nahi du bakarrik, bere burua begiratzera eta ez ikustea desastre bat, aldizkariko gorputza nahi du. Artista izatea, musa, norbaiten aitzakia lienzo batean erretratatu izateko.

Orduan pixkanaka hezur bihurtzen da; musu batengatik saltzen da; zuk derriortu zenion hori izaten hasten da. Indarrak faltan ditu, pentsatzen duelako ez dela neska ausart bat, bere buruak bakarrik gezurra esaten diolako.

Berak ez dakiena, bere barrearen doinua nire musika gogokoena dela. Bere begiak bi eguzki bezalakoak direla. Eta nire bularra salduko nuela lehen bezala ikusteko berrero.

Berreskuratu nahi dudala neskabila hori, besarkadak oparitzen zituena, ez zue-nak sinesten sozietate honek saldu nahi izan diguna. Neskaxa hori, bere irribarrearekin, hegan egitearekin amets egiten zuena, eta printzesa izatera jolasten zuena.

Neska hori hain gaztea, eta hain polita...Hainbeste udaberri duzun hori barrutik. Zer egin behar da zure begiak ixteko eta zure barruan begiratzeko. Mundua ahazteko, pertsona hoiek sepultura honetara ekarri zaituztenak ahazteko. Esadazu zer egin behar den kontsumitzen zaituenarekin amaitzeko.

Maitia, badakizu nik ez dudala gezurrik esaten. Bakarrik tuntun batek ez zaitu begiratuko; politena baita beti ikustea nola loratu den, loratzen den eta loratuko den lore bat.

AMODIO GOZOA

Irati Turrilas Portela

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2° PREMIO: Educación Secundaria 2° ESO

Bazen behin cub-cake bat azukrearen munduan bizi zena. Oso koloretsua zen. Barrutik txikle kolorekoa zen, eta gainetik nata pixka bat zuen ile bezala. Azukrezko lazo bat zuen, marrubizko zapozekoa.

Egun batean erabaki zuen, beste mundu batera joatea, bere munduan berarekin sartzen zirelako eta bakarrik uzten zutelako. Beraz pentsatu zuen "Gaur goiz sartzen banaiz ohean, bihar goiz altxatu eta inori ezer esan gabe joango naiz". Hori egin zuen.

Hurrengo egunean goiz altxatu eta ibiltzen hasi zen. Eguzkia zegoen. Ibiltzean bere mundua urrun uzten zuen.

Arrasaldea zen, ilea pixkanaka urtzen hasten hasi zitzaion, urezko ur tantak zerutik jaisten balira bezala. Bat-batean urrunean laukizuzen marroi batzuk ikusi zituen. Korrika hasi zen eta iritsi zenean dena marroia ikusi zuen. Txokolatzeko mundua zen. Denak bera begira gelditu ziren kolore asko zituelako. Cub-cake-a txokolatzeko tableta asko ikusi zituen, baina batekin liluratua gelditu zen. Txokolatzeko tableta barrutik lakasitoak zituen. Begiak urdin urdinak ziren. Berarekin maitemindua gelditu zen. Txokolatea hurbildu zitzaion eta esan zion.

- Kaixo, nire izena Loki da eta zurea?
- Nirea Lore da, oso koloretsua naizelako. Biak irribar egin zuten.
- Ba... gauza bat esan behar dizut. Esan zion Lore.
- Zer? -esan lotsarik gabe.

Isiltasun deseroso bat egon zen eta bat-batean esan zion Lokik:

- Ni ere zutaz maitemindu naiz. Nahi baduzu nire etxean egin ahal duzu lo.

Biak bere etxera joan ziren, Txokolatzeko etxe bat zen. Hormetan gominolak zeuden eta atariaren kanpoaldearen alboetan azukrezko makilak zeuden. Sartu eta dena txokolatzekoa zen.

Azkenean:

- Maggie esnatzera!!!
- Banoa ama. Oihukatu zuen.

Maggie esnatzerakoan bere ohe ondoko mahian ikusi zituen Lore bezalako cub-cake bat eta Loki bezalako txokolatea. Biak besarkatzen ari ziren.

- Ze arraroa, atzo ez zegoen hori. Pentsatu zuen altuan.

Maggie ikastolara nahasia joan zen.



Bertso paperak modalitatea

Modalidad “Bertsos escritos”

KORRIKA

Judith Oroz Urmeneta

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 4º curso

DOINUA: Astoa ikusi nuen.

Korrikara joango naiz
nire lagunekin
ongi pasatuko dut
lagun guztiekin.

Benetako korrika
iristen denean
amarekin joango naiz
ta pozik korrikan.

NATURA

Mikel Iriarte Rojo

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Natura da bizitza
animaliena
izakion etxea
ere landareena.

Natura ez zikindu
ez da oso ona
guk lagundu ahal dugu
lortu poztasuna.

Ez zikindu natura
bestela hilko da
eta animaliak
ere hilko dira.

Guk orduan ez dugu
izango bizitza
eta gure mundua
triste egongo da.

POBREZIA

Patricia Garde Chao

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria I° ESO

Pobrezi madarikatu hori,
mundu arazo larri dena
heriotz askoren erruduna
miseria handiena.

Osasun eta janari falta
benetan gose mordoa
ahora eramateko ezer ez
ea laguntzeko gogo?

Afrikako ume errugabeak
gehienak hil arriskuan
egunean bazkari zakarra
euro bakarra sakelan.

Pobrezia oso gertu dago
nafarroako kaletan
edukiontzian jaki bila
eskatzen merkatuetan.

Gure hanburgesa lodiekin
beraiek plater hutsekin
gu kexatzen txerto egunetan
hor gripe hilkorrekin.

Mesedez eskatzen digutela
gure laguntza onena!
beraien beharrak asetzeko
diru garrantzitsuena.

AMA

Leire González Etxenagusia

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria 2° ESO

Zenbatetan liskarrak
zenbatetan lana
zenbatetan negarrak
zenbatetan ama,
badakizu zuk eta
maite zaitudana
maitasun erreala
da nik daukadana.

Gau guztietan beti
musu bat kopetan
zenbat miresten nizun
diotsut benetan
zure argazki polita
orain dut eskutan
zenbat faltan zaitudan
gau ilun denetan.

Amonaren begitan
zeorren islada
korrika joango nintzen
zure besotara
nire bertsoen doinu
ta neurria zara
ez dut inoiz ahaztuko
zure begirada.

Aurkibidea / Índice

Ipuinak / Cuentos

SARIA / PREMIO **EGILEA / AUTORA** **ORR. / PÁG.**

Lehen Hezkuntza / Educación Primaria

3. maila / 3º

1. saria	Lagunak betirako	Iratze Mauleon Arnaiz	4
2. saria	Martin eskiatzen	Andoni Astrain Zabalegui	5

4. maila / 4º

1. saria	Josebaren ametsa	Amaita Nazabal Martínez de Albéniz	6
2. saria	Lauraren bidaia	Nahia Biurrun Álvarez de Eulate	7

5. maila / 5º

1. saria	Pultsera boteretsua	Izadi Biurrun Mendia	8
2. saria	Izkutuko bertsolaria	Ainara Gorostidi García	9

6. maila / 6º

1. saria	Oroimena	Paula Crespo Lamelas	10
2. saria	Koloreekin ametsetan	Itsaso Arraras Moreno	11

Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. maila / 1º

1. saria	Argia eta iluntasuna	Ane Cestau Lertxundi	11
2. saria	Basoko abesti lehiaketa	Mikel Iso Muguruza	13

2. maila / 2º

1. saria	Hezurrak	Sara Del Río Muñoz	14
2. saria	Amodio gozoa	Irati Turrilas Portela	15

Bertso paperak / Bertsos escritos

SARIA / PREMIO **EGILEA / AUTORA** **ORR. / PÁG.**

Lehen Hezkuntza / Educación Primaria

4. maila / 4º

1. saria	Korrika	Judith Oroz Urmeneta	16
----------	---------	----------------------	----

5. maila / 5º

1. saria	Natura	Mikel Iriarte Rojo	16
----------	--------	--------------------	----

Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. maila / 1º

1. saria	Pobrezia	Patricia Garde Chao	17
----------	----------	---------------------	----

2. maila / 2º

1. saria	Ama	Leire González Etxenagusia	18
----------	-----	----------------------------	----

Antolatzailea / Organiza:



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAIN
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua
Servicio municipal de euskera